



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

## PRENTSARAKO

# BATUZ PROIEKTUAK BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO LEHENENGO TRAMITEA IGARO DAU

- **Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen proposamenez, Ogasun eta Finantzetako Batzordeak indarrean sartzeko egutegi barria adostu dau.**
- **Foru Gobernua eusten daben taldeek oposizinoak aurkeztu dituan aldaketarako 50 zuzenketa-eske baino gehiago bota ditue atzera.**
- **Ogasun eta Finantzetako Batzordeak on ikusia emon deutse bitartekari fiskalak kontrolatuko eta European elusio fiskala saihesteko tributuen beste aldaketa batzuei.**

(Bilbon, 2020ko garagarriaren 9an). Bizkaiko Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantzetako Batzordeak argi berdea emon deutso gaur datorren urriaren 1ean norberaren borondatez eta 2022. urtetik aurrera derrigorrez Batuz ezarteko Foru Arau Proiektuari. Horrez gain, Bizkaiko tributuen arautegia iruzur fiskalaren kontrako burrukan zerga administrazioen arteko lankidetzarako Europako arteztaraura egokitzeak be batzordearen on ikusia jaso dau. Foru Gobernua eusten daben taldeek (EAJ-PNV eta PSE-EE) oposizinoaren zuzenketa-eske bakarra be onartu ez daben eztabaida luzearen ostean, proiektu biak osokoak onetsi beharko ditu, indarrean sartu aurretik.

Batuzeri jagokonez, sistema horrek jarduera ekonomikoen kontrolerako eta zerga arloko betebeharrak betetea errazteko neurriak jasoten ditu. Batuz ezarteko proiektuak aldaketak ekarriko ditu Soziedadeen ganeko Zergaren, Persona Fisikoen Errentaren ganeko Zergaren, Ondarearen ganeko Zergaren eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Tributuen Arau Orokorren foru arauetan.

Aldundiak, Covid-19a dala eta aldatu egin behar izan dan egutegia erabilten dau Batuz ezarteko, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen proposamenez. Helburua, zergen kontrolerako sistemea 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera derrigorrezkoa eta 2020ko urriaren 1etik aurrera borondatezkoa izatea da.

Batzordeak ez ditu onetsi oposizinoak planteatu dituen aldaketarako zuzenketa-eske gehienak. PP taldeak 2025. urtera atzeratu gura eban araua



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

indarrean sartzeko datea, erregulazio barriak eta betebeharrak “epealdi luzeagoa eskatzen dabelako zergadunak neurrien egokitzapena eta martxan jartea eta horreen aplikazio praktikoa gauzatu daizan”. Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu taldeek be, euren aldetik, urtebete atzeratzea planteau dabe, Covid-19aren pandemiaren eragina dala eta. Talde guztiek osokoa eztabaidatzeko erreserbau ditue euren zuzenketa-eskeak –50 baino gehiago–.

## KENKARIAK, AITORPENAK ETA ZEHAPENAK

Batuz ezarteak enpresei eta autonomoei aparteko gastua eragin ahal deusenez, Batuz ezarteko orduan egindako gastuaren %30 PFEZn edo Soziedadeen Zergan kenkari moduan sartu ahal izatea aurreikusten dau Bizkaiko Ogasunak bere arau proposamenean. Kenkari hori 2020 eta 2021 ekitaldian aplikau ahal izango da. Kendu ahal izango dan gastua softwarea erosteko, fakturazio sistema barriztetako edo periferikoak, tiketen inprimagailuak, adibidez, erosteko gastua izan leiteke

Zergadunek 140 eta 240 eredu bitartez bialduko daben informazioagaz, Bizkaiko Foru Aldundiak euren BEZ eta Soziedade edo Errenta aitoren zirriborroak daborduko eginda emongo deutseez enpresei eta autonomoei. BEZari jagokonez, lehenengo zirriborrea 2022ko zezeilean bialduko jake zerga hori hilero aurkezten daben zergadunei, eta apirilean hiru hilebetez behin egiten dabenei. Autonomoek, ganerako persona fisiko guztiek moduan, 2022ko apirilean jasoko dabe errenta aitoren zirriborrea, eta enpresek 2023ko garagarrean izango dabe zerbitzu hori, aurreko urteari jagokon soziedadeen zergea likidetan dabenean.

Batzordeak onetsi dauen Foru Arau proiektuak betebeharrak ez beteteak ekarriko dituan zehapenak be aurreikusten ditu. TicketBAI softwareak marketan dituan betebeharrak ez beteteak negozio zifraren %20ko zehapena jasoko dau, 20.000 euro gitxienez. Zehapena jaso dauen zergadunak arau-hauste bera bariro eginez gero, zehapena negozio zifraren %30ekoa izango da, 40.000 euro gitxienez.

## ELUSINO FISKALA JAZARTEA



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

Horrez gain, batzordeak bide librean eman dau Bizkaiko Batzarrek osokoa onetsi daien Europako DAC 6 Arztegarura egokitzeko Foru Arau Proiektua, bitartekari fiskalei betebeharrak gehiago ezarriz. Plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoak Foru Ogasunari jakinarazoz beharko dituzte. Holan, Bizkaiak, bere zerga arloko arautegia Europako zerga administrazioen arloan lankidetzan aritzeko DAC arztegarura egokitzeko prozesua osatuko dau iruzur fiskalaren kontra burukatzeko.

Arztegaru horrek, plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoak zerga administrazioari jakinarazoz beharra ezartzen du bitartekari fiskalei (abogaduei, ekonomialariei, aholkulari fiskalei, inbertsionerakundeei, bankuei...). Europako zerga agintariek trukatu egingo dabilen informazio horrek informazio osoa eskuratzeko eta "erasokorrak izan daitezkezan" mekanismo fiskalen aurrean erreakzionetako aukera ematen dau.

Testu barriak, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen proposamenez, eta Europan onetsi danagaz bat etorritako, informazio hori, berandu jota, "2021eko zehazlearen 28an" aitortu beharko dala ezartzen dau. Horrez gain, arau proiektuak "400.000" euro arteko zehazpenak jasoten ditu, arau hauslea zergaduna bera bada, eta soldataren baliokidea izango dan zehazpena arau hauslea bitartekaria danean.

Batzordeak, azkenean, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek batera aurkeztu dituen 6 zuzenketa-eske tekniko onetsi ditu, eta baztertu egin ditu EH Bilduk aurkeztutako 2 eta Elkarrekin Bizkaiak aurkeztutako beste 9. Talde biek osokoa eztabaidatzeko erreserbau ditue.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# EL PROYECTO BATUZ PASA SU PRIMER TRÁMITE PARLAMENTARIO EN LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

- **A propuesta de los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, la Comisión de Hacienda y Finanzas acuerda un nuevo calendario de entrada en vigor.**
- **Los grupos que sustentan al Gobierno foral tumban más de 50 enmiendas de la oposición para modificar el proyecto normativo.**
- **La Comisión da el visto bueno también a otras modificaciones tributarias para controlar a los intermediarios fiscales y evitar la elusión fiscal en Europa.**

(Bilbao, a 9 de julio de 2020). La Comisión de Hacienda y Finanzas de las Juntas Generales de Bizkaia ha dado luz verde hoy al Proyecto de Norma Foral que permitirá la implantación de Batuz el próximo 1 de octubre de forma voluntaria, y a partir de 2022, con carácter obligatorio. Asimismo, la adaptación de la normativa tributaria de Bizkaia a las directivas europeas de cooperación entre administraciones tributarias en la lucha contra el fraude fiscal, ha recibido también el visto bueno de la comisión. Tras un largo debate en donde los grupos que sustentan al Gobierno foral (PNV y PSE-EE) no han aceptado ninguna enmienda de la oposición, ambos proyectos deberán ser aprobados ahora por el pleno para su entrada en vigor.

En lo que concierne a Batuz, este sistema integra medidas de control de los rendimientos de las actividades económicas y medidas para facilitar el cumplimiento de las obligaciones tributarias. El proyecto para la implantación acarrea modificaciones en las normas forales del Impuesto sobre Sociedades, Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Patrimonio y la General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

La Diputación maneja para la implantación de Batuz un calendario que ha tenido que ser modificado como consecuencia del Covid-19, a propuesta de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos. La intención es que el sistema de control tributario sea de obligado cumplimiento a partir del 1 de enero de 2022 y voluntario desde el 1 de octubre de 2020.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

La comisión ha rechazado la mayoría de enmiendas de modificación que han planteado los grupos de la oposición. El PP quería retrasar la entrada en vigor de la norma al año 2025 ya que la nueva regulación y las obligaciones “exigen un mayor periodo para que el contribuyente materialice la adaptación y puesta en marcha de las medidas y su aplicación práctica”. Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu, por su parte, apostaban también por retrasar su aplicación un año por el impacto generado por la pandemia Covid-19. Todos los grupos se han reservado sus enmiendas –más de 50- para debatirlas en pleno.

## DEDUCCIONES, DECLARACIONES Y SANCIONES

Dado que la implantación de Batuz puede requerir un gasto extra a empresas y trabajadores autónomos, la hacienda vizcaína contempla en su propuesta normativa una deducción en la cuota del IRPF o el Impuesto sobre Sociedades del 30% del gasto asumido en la implantación de Batuz que será aplicable finalmente durante el ejercicio 2020 y 2021. El gasto deducible puede corresponder a la adquisición del software o a la renovación del sistema de facturación o de periféricos como la impresora de tickets.

Con la información que los contribuyentes remitan a través de los modelos 140 y 240, la Hacienda Foral de Bizkaia dará ya confeccionados a las empresas y autónomos los borradores de sus declaraciones de IVA y de Sociedades o Renta. En el caso del IVA, el primer borrador será remitido en febrero de 2022 a los contribuyentes que liquiden este impuesto mensualmente, y en abril a los que lo hacen de manera trimestral. Los trabajadores autónomos recibirán su borrador de la renta, como el resto de personas físicas, en abril de 2022 y las empresas dispondrán de este servicio en julio de 2023, cuando liquiden el impuesto de sociedades correspondiente al ejercicio anterior.

El proyecto de Norma Foral aprobado por la comisión contempla también las sanciones por el incumplimiento de las obligaciones. Incumplir las obligaciones que marca el software TicketBAI será sancionado con un 20% de la cifra de negocio con un mínimo de 20.000 euros. Si el contribuyente sancionado volviera a cometer la misma infracción la sanción será del 30% de su cifra de negocio, con un mínimo de 40.000 euros.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PERSEGUIR LA ELUSIÓN FISCAL

Asimismo, la comisión ha dado vía libre para que la Cámara vizcaína apruebe en pleno el Proyecto de Norma Foral de adaptación a la Directiva Europea DAC 6, estableciendo nuevas obligaciones a los intermediarios fiscales, que deberán comunicar a la Hacienda Foral mecanismos transfronterizos de planificación fiscal. De este modo, Bizkaia completa la adaptación de su normativa tributaria a las directivas DAC de cooperación entre administraciones tributarias europeas en la lucha contra el fraude fiscal.

Esta directiva establece la obligación a los intermediarios fiscales (abogados, economistas, asesores fiscales, entidades de inversión, bancos,...) de informar a la administración tributaria sobre mecanismos de planificación fiscal. Esta información, que será objeto de intercambio entre las autoridades tributarias europeas, permite obtener información completa y reaccionar ante mecanismos fiscales “potencialmente agresivos”.

El nuevo texto establece, a propuesta de PNV y PSE-EE, y en consonancia a lo aprobado en Europa, que esta información deberá ser objeto de declaración a más tardar “el 28 de febrero de 2021”. Asimismo, el proyecto normativo incluye sanciones de “hasta 400.000 euros” si el infractor es el propio obligado tributario y una sanción equivalente a los honorarios cuando este sea el intermediario.

La comisión ha aprobado finalmente 6 enmiendas de carácter técnico presentadas conjuntamente por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, y ha rechazado 2 presentadas por EH Bildu y otras 9 de Elkarrekin Bizkaia. Ambos grupos las han reservado para su debate en pleno.